

XIV. ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL

ARAUDIA

Data:	2025ko maiatzaren 25a
Irteera eta helmuga:	Zegama (Gipuzkoa)
Irteera ordua:	10:30
Helmuga itxiera:	12:00
Distantzia:	10,4 Kilometro
Gorako desnibel metata:	505 metro
Beherako desnibel metata:	511 metro
Gehieneko altuera:	735 metro
Gutxieneko altuera:	296 metro (Zegama)
Zailtasuna:	Ertaina

Izen emateko data	<p>Gehienez 100 korrikalarik parte hartu ahal izango dute. Aurre-inskripzioa urtarilaren 27tik otsailaren 7ra izango da eta 1€ko kostua izango du.</p> <p>Antolakuntzak 10 dortsal erreserbatuko ditu lasterketak dakartzan konpromisoak erantzuteko.</p> <p>Antolatzaileek dortsalak gordeko dituzte azken edizioko TOP15ari (emakumeak eta gizonak) emateko.</p> <p>Geratzen diren dortsalak (60), 100 parte-hartzaile gehienez bete arte, zozketatu egingo dira otsailaren 21an. Aurrez aipatu bezala, dortsala lortzen duen korrikalaria ez da zozketa prozesuan sartuko.</p> <p>Lehenengo aldiz zozketan parte hartzen duten korrikalariek, zozketarako zenbaki bakar bat izango dute. Aurreko urteetan zozketan parte hartu eta dortsalik suertatu ez zaion korrikalariari, zenbaki bat gehiago gehituko zaie, zozketan parte hartu eta dortsalik izan ez duten urte bakoitzeko.</p> <p>Korrikalariren bati dortsala suertatu bazaio aurreko urteren batean, hurrengo urteetako zozketak bakarrik hartuko dira kontutan.</p>
Izen emateko modua	RockTheSport.com web orrian.

XIV. ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL

ARAUDIA

Parte hartzeko adina	16 eta 18 urte bitartean. Urtea hartuko da kontutan.
Derrigorrezkoa	Gurasoek sinatutako baimena.
Derrigorrezko materiala	Lasterketa osoan zira eramatea derrigorrezkoa da, mauka luzeak eta bakoitzari dagokion neurri egokia izan beharko du, baita hornidura likidorako edalontzia eta manta termikoa ere.